2. zk.
1999

iDe

editoriala

Gaur, gure artean ez dago boladan arrazista, fazista edo integrista zarela esatea, ez eta kontserbadore zarela esatea ere. Baina benetan, barne-barnean, sentimendu ezberdinak, batzuetan aurkakoak, mamitzen eta gorpuzten dira. Inork ez du nahi izaten beste inork arrazista dela esan diezaion, elkarbizitzaren arazoa datorkionean, kasurako, ijitoekin, gure gizarteko talde jakin horrekin; edo beste multzo handiago horrekin, zabalagoa, anitzagoa eta konplexuagoa den horrekin. Izan ere, etnia, erlijio, ekonomia, gizarte eta kultura ezberdinetatik datozen horiek, ezezagunak eta arrotzak dira erabat guretzat eta horiek geure egitea eta onartzea nekeza ere nekeza egiten zaigu.

Ez dakit adimenaren edo ideologiaren ikuspegitik, gure erkidegoan gero eta handiagoa den inmigrazioak, berez, berarekin dakartzan ezberdintasuna eta aniztasuna gorroto ditugun ala horiek ito egiten gaituzten. Baina kontua da gure sentimenduak hain zuzen ere arazoa hurbil daukagunean azaleratzen direla, arazoak eta haien ondorioak zipriztintzen gaituztenean, orduantxe loratzen direla sentimendu arrazistak. "Ni ez naiz arrazista" diogu ozen, jendaurrean, baina pribatuan, ahapean, unea iristen zaigunean, adierazi egiten dugu ez dugula gustuko ezaugarri horietako familia baten ondoan bizitzea, eta pisua alokatzeko orduan... Oro har, ez dugu gustuko gure seme-alabak haien ikastetxe berean ibil daitezen, haiekin nahas daitezen eta haiekin harremanak izan ditzaten, zeren eta, besteak beste, hori gure seme-alaben prozesu normalaren kalterako baita.

Beharbada, sakoneko arrazoia da Nafarroako gure gizartean, politikoki sendoa eta gizartearen alderditik aurreratua den Nafarroa honetan, hor ezkutuan, sendo erroturik ditugula bi errealitate, bi mundu, bi ikuspegi, baina arazo honek gizartean duen eragina zeharo ezezaguna zaigu, eta ondorioz, erantzuna ere parekoa da: hezkuntzako, laneko, gizarteko eta osasunaren arloko erakundeen erantzunak laguntza izaera hutsa du inmigrazioaren arazoaren aurrean. Diferentziak ezarri eta gehiengoaren eta "besteen" arteko aldea gordetzen saiatzen gara.

Geure buruaz mintzo garenean, geure foru komunitatea aipagai dugunean, ez dugu besterik egiten aurrera pausuak eta aurrerapenak goratu baizik, adurra dariola egoten gara, batik-bat gizartearen alderdia aipatzen dugunean eta are gehiago geure burua beste autonomia erkidego batzuekin erkatzen dugunean. Baina ezkutatu egiten dugu beti beste errealitate hori, baztertutako taldeena eta baztertutik dauden gutxiengoena. Beste Nafarroa hori ere Nafarroa da.

Horregatik, ezin dugu ahaztu gizarte bat ez dela politikoki heldua, gizartearen aldetik garatua eta demokratikoki sendoa, komunitatean dauden gutxiengoen kultur aniztasuna barneratzen ez duen bitartean, gutxiengo horien guztien integraziorako eta elkarbizitzarako neurriak hartzen ez dituen bitartean, baliabide guzti-guztiak, hala giza baliabideak nola baliabide ekonomikoak integrazioa lortzeko erabiltzen ez dituen bitartean.

Komeni da gogora ekartzea gu geu zer izan garen iraganean, zer izan garen aspaldi ez dela: emigrazio masiboa bizi izan duen herria, bereziki Nafarroa. Esan beharra dago arrazoiak eta kariak berdinak direla, edo arrazoi politikoak, edo gizarte arazoak, baina kontua da jaioterritik irtetera beharturik daudela, han lanik ez egoteagatik edo duintasunez bizitzeko adina baliabide ez egotearen ondorioz baldintza latzetan bizi izateagatik. Horixe da bizi-irautearen legea.

Nafarroara itzuliz, ijitoen komunitatea daukagu, gehienak duela 25 urte edo gehiago hona etorriak, eta baita gehienbat magrebiarrez osaturiko beste talde bat ere, Erribera aldean, gure artean hamarkada bat baino gehiago daramatenak.

Zer egin du Nafarroako gizarteak gutxiengo etniko eta gutxiengo kultural hauen alde? Onartu eta aitortu beharra daukagu ezer gutxi egin dugula eguneroko bizitzan integratzeko.

Nafarroako Gobernuak helduentzako hezkuntza eskolak ditu Iruñean eta Tuteran atzerritarrentzako gaztelera ikastaroak emateko; horrek agerian uzten du talde horrek baduela interesa, baduela ardura eta baduela ahalegina egiteko gogoa gure gizartean integratzeko: ikasi gure artean bizitzeko, gurekin harremanak izateko eta beren burua defendatzeko.

Baina ez dira hor bukatzen zailtasunak.

Onartu egin behar dugu gauzak horrela direla eta arazo honi irtenbidea aurkitu, zintzo jokatuz, aniztasunean eta ezberdintasunean bizitzeak dituen alde onak ikusiz, aberasgarria dela ikusiz. Zeregina guztiona da, nahiz eta erantzukizunik handiena gure erakundeek eta gure agintariek duten.

Zeren eta, kultur, gizarte eta ekonomiaren arloko inplikazioengatik, inmigrazio politikaren oinarria politika aktiboak behar du izan, ondoko gidalerroak bere eginen dituen politika aktiboa:

Inmigrazioa eragiten duten arrazoiak ezabatzea, inmigranteen jatorrizko herriekin lankidetzan arituz garapenean laguntzeko.

Migrazioen fluxuak hobeki ezagutzea, benetako politika integratzailea lantzeko.

Nafarroan bizi diren etorkinen gizarte integrazioan aurrera egitea.

Nire ustez, hauxe da Espainiako gizarteak, orokorrean, eta Nafarroakoak, bereziki, konpontzeke duen arazoetariko bat.

Ángel Oliver
HOHIko irakaslea Tuteran

Aldizkari Berri-Emailea
Nafarroako Eskola Kontseilua
Diseinu eta Maketazioa: Grafika Publikaturak. Mikel Arellano Ortiz de Urbina Eskola

eskolara

Ikasgela Gaur

IKASTETXEETAKO ESKOLA KONTSEILUEN ETA NAFAROAKO ESKOLA KONTSELUAREN ARTEKO I. TOPAKETA

Nafarroako Eskola Kontseiluak, iragan apirilaren 24an I. Topaketa Ikastetxeetako eskola kontseiluekin antolatu zuen. Helburu nagusiak hauek izan ziren:

Foru Komunitateko eskola kontseiluekin harremanetan jartzea.

hezkuntzarentzat interes handiko gai bat aztertzea eta hari buruz hausnartzea.

aurrera begira, hezkuntzak kezkatzen dituen pertsonen artean urtero halako elkartrukea egiteko oinarriak finkatzea.

Detaldiak arrakasta handia izan zuen, 255 pertsona elkartu ziren, eskola kontseilu gehienetako famili ordezkariak eta irakasleen ordezkariak tarteko. Giro ona izan zen. Era berean, Galiziako eta Euskadiko eskola kontseiluen buruak ere gure artean izan genituen, bai eta Nafarroako administrazioko hezkuntzaren arloko ordezkaritza zabala ere.

Lehenengo topaketa honen gaia "Aniztasunaren tratamendua hobetzeko proposamenak".

Guillermo Herrero Maté Nafarroako Eskola Kontseiluaren buruak eman zion hasiera ekitaldiari. Ongi etorria eman ondoren, topaketaren esanahia zein zen azaldu zuen eta azpimarratu nahi izan zuen era horretako ekitaldiak ikuspegi positibotik egin behar direla, eta aurrera begira.

Ondoren, Santiago Arellano Hezkuntzako Zuzendari Nagusiak, ekitaldiari hasiera eman zion eta mezu garrantzitsua bota zuen: berak zuzentzen duen saila, une honetan, Nafarroako ikastetxeetan aniztasunaren aurrean ze neurri hartu diren ebaluatzen edo neurtzen ari dela iragarri zuen; esan zuen, baita ere, azterlanetik ondorio garrantzitsuak aterako dituztela, zeren eta administrazioko hezkuntzaren arloan behinola hartu ziren erabakiekin ere arriskua hartu baitzen, ordura artekoarekin alderatuta, eremu ezezaguna eta/edo ezberdina izateagatik. Halaber, esan zuen DBHko bigarren eta hirugarren mailan aprobetxatu egin behar zela hautazko irakasgaiak egotea aniztasunaren gaia egokiago lantzeko, eta DBHko laugarren mailan ezarritako ibilbideak (badira bi urte abian jarri zirela) ontzat eman zituen. Beste ideia bat ere bota zuen, alegia, "Gutxiengo soziokulturalen hezkuntza" kezkatzeko gaia dela eta beraren ustez, ez legokeela gaizki 2000. urteko II. topaketen gaia horixe izatea.

Ondoren, hizlari nagusiak hartu zuen hitza, Teresa MAURI Bartzelonako Unibertsitateko Psikologia Ebolutiboko eta Hezkuntzako irakasleak, hain zuzen ere. Honek bere hitzaldian bi zati ezberdin egin zituen; lehenengoan, gaur egun aniztasuna lantzeko ditugun baliabideak eta mekanismoak deskribatu zituen, aniztasunaren kontzeptua bera ere jarratu zuen, aldez aurretik adostutako elementutzat, eta azkenik horren guztiaren ondorioz sortu den ikaskuntza kontzeptu berria ere izan zuen mintzagai. Lehenengo zati hau interes handikoa izan zen familien ordezkarientzat.

Bigarren zatian irakaskuntzako arlo korapilatsu hori hobetzeko proposamen zehatzak ematera mugatu zen, eta aldi berean, proposamenak bi multzotan sailkatu zituen. Lehenbiziko multzoan, ikastetxeetan aniztasunari jaramon egiteko estrategia orokorra garatzen duten proposamenak aipatu zituen, alegia, ikastetxe barruko antolakuntza hobetzea eta, batik-bat, talde-lana, berau funtsezkotzat jo baitzuen. Talde-lanak esan nahi du helburuak partekatu egin behar direla, benetan ordea, arazoak ondo identifikatu behar direla eta erabakiak (eta ezadostasunak) aztertzeko era zorroztasunez pentsatu behar dela.

ICPa prestatzeko autonomia eduki beharko luke ikastetxeak, bai eta edukiak, metodologia, ebaluazio irizpideak hautatzeko, hautazkotasunerako, tutoretzarako ekintza plana eta taldekatzeko aparteko neurriak hartzeko ere, ikastetxeak eta ez beste inork, eta eskumen hori era orekatuan eta arduratsuan erabiltzeko.

Proposamenen bigarren multzoko gai nagusia hauxe da: eskolari aniztasunaren tratamendurako kanpoko laguntza eta baliabideak eman behar zaizkiola. Ildo honetan, beharrezkoa da gizarte langileen lankidetza zuzena eta baita kaleko edo familiako hezitzaileena ere, sei eskola-orduetako jardunari jarraipena eman diezaioten. Baina ezinbestekoa da harago heltzea: behar-beharrezkoa da hiritarrak planteamendu integratzaile berriaz jabetzea; izan ere, gizarteak ez badie garrantziarik ematen zailtasunak dituzten pertsonen ahaleginei eta ekintzei, nekez eginen du zerbait eskolak, berak bakarrik.

Mintzaldiaren ondorik egin ziren galderetan, besteak beste, ondoko arazoak mahairatu ziren: derrigorrezko bigarren hezkuntzan irakasgai eta irakasle gehiegi egotea; talde koherenteak sortzeko zailtasunak, irakasleen "ustezko" eskubideak ukitu gabe; arreta berezia behar duten ikasleak nortzuk diren jakiteko arazoak; irakasleen mugikortasuna dela-eta sortzen diren arazoak, ezin baitira taldeak eratu, ezta ikastetxe txikietan ere; edozein neurri bereiztailea edo integratzailea izan litekeela, azken helburuak zein diren; arreta behar dutenak hautatzeko irizpideak eta horien benetako ahalbideak kontuan hartu gabe neurriak hartzen direnean sortzen diren arazoak.

Ekitaldiaren bigarren zatian hiru ikastetxetako ordezkariek parte hartu zuten. Hasteko, Miguel Ángel Zabalza eta Ramón Martín jaunek hitz egin zuten, Iruñeko "Navarro Villoslada" B.H.I.ko zuzendariak eta ikasketa buruak, hurrenez hurren. Beren ikastetxeko egoera eta beraiek hartzen dituzten neurriak aipatu zizkiguten. Neurrien artean, hona hemen batzuk: 1. eta 2. mailan tutore bera egoten da eta irakasle talde bera; irakasleek zenbait bilera egiten dituzte, ebaluazioko bilerez gain; tutoretzen koordinaziorako astean ordubete dute; behar duten ikasleentzako laguntza, gutxienez astean ordubete ikasgai batean edo batzuetan, asteko hiru ordu ere izan litezke lau arlo badira; curriculum-a anizteko taldeak ondo funtzionatzen dute, eta azkenik, oraingoz ez dago Curriculum Egokituari buruzko Gunerik edo Unitaterik.

Bukatzeko, proposamen hauek azaldu zituzten: hurrengo urterako antolakuntza funtsean ez aldatzea, curriculum-a anizteko unitateen ordutegia aldatzea, alor horretan ikastetxeari autonomia handiagoa emateko eskatuz, departamentuek gai horretan duten parte hartzea garatzea eta zehaztea, eta orientazio departamenduari protagonismo handiagoa ematea.

Bigarrenik, Carmen Jiménez andreak eta Javier Aisa jaunak esku hartu zuten, Iruñeko Santo Tomás/Dominicas hitzartutako ikastetxeko irakasleak biak ere. Hauek, hasteko, esan zuten aniztasuna pertsonaren ondorio argia dela, beren ikastetxean aniztasunaren gaia eurek erabakitakoa dela, ez inork ezarria, taldean hartutako erabakia izan dela eta orain ere hala dela, aniztasunaren aurrean jarrera ezberdina erakustea dagoela oinarrian, jarrera berri horrek burua zabaldu egin diela eta praktikak ere malgutasuna eman diela, eta hori guztia ez dela besterik hurkoa laguntzeko kristau filosofiaren erantzuna baizik.

Haiek ondoko neurriez baliatu ohi dira: curriculum-neurriak, helburu nagusiak betetzeko egokitzapenak eginez; hautazkotasuna eta tutorea ardatz dira; antolakuntzaren arloko neurriak, hala nola teknologian laguntza handiagoa ematea, denbora eta espazio berriak sortzea ikasleentzat; laguntzaile eta laguntzak beti gela barruan, kanpoan beharrezkoa denean bakarrik; arlo jakin batzuetan talde malguak... Azkenik, eskola-orduez kanpoko neurriak, lan handia auzoko gizarte-langileekin eta kaleko hezitzaileekin batera.

Hobekuntzarako dituzten proposamenekin bukatu zuten mintza saioa. Hauek aipatu zituzten: ikasleen motibazioa aurkitu behar da, nerabezaroan arazo larria baita; ebaluatu, hobetzeko baino ez da ebaluatu behar, eta erabakitzen lagundu behar da. Curriculum Egokituaren Unitateak (CEU) erabili beharrean, Curriculum Egokituko irakasleak proposatzen dituzte –beraien ustez irakasle bi lerro biko–; jarrera eta jokabide onena erakusten duten ikasleentzako lan-proiektuetan mugatzea (hauek lansaio erdiko irakaslea behar dute lan proiektuak garatu eta egiteko), eta, batez ere, kanpoko laguntza: haien ustez gizarte-langile bat edo gizarte-hezitzaile bat behar dute ikastetxeari atxikita.

Azkenik, Manuel Campillo jaunak eta María Victoria Nievas andreak esku hartu zuten, Tuterako "Benjamín de Tudela" BHIko zuzendariak eta ikasketa buruak, hurrenez hurren. Lehenengo eta behin, aniztasunaren aurrean beraiek beti talde heterogeneoak egiten dituztela azaldu zuten: talde bakoitzean, beti, hiru hautazko ikasgaietara joan diren ikasleak daude nahasturik; horrela, eragotzi egiten dute hautazkotasuna izatea taldea osatzeko irizpidea. Aniztasunerako orduak DBHko 1. eta 4. mailako taldeetan ratioa jaisteko erabiltzen dituzte, eta bien bitartean, 2. mailan eta 3. mailan errekuperazio taldeak eratu dira. Talde malgu bakoitzean hamar ikasle inguru egoten dira, badute CEU bat, ikastetxea behin betiko destino duten irakasle bolondresek gidaturik, eta haien ustez positiboa izan da; bestalde, beren poza azaldu zuten iaz administrazioko hezkuntza atalak DBHko 4. mailarako zehaztu zituen ibilbideengatik. Halaber, pozik agertu ziren Curriculum-a Anizteko Unitateekin. Ikastetxean koordinaziorako egiten dituzten bileren garrantzia azpimarratu nahi izan zuten, bai astero egiten dituztenak bai ebaluazio batetik besterako tartean irakasle taldeek egiten dituztenak. Familiekin harreman ona dutela aipatu zuten, familiak ahaztuta dutela jada batxilergoan ebaluatzeko zeuden irizpideak, azken notak eskura ematen dizkietela familiei eta haiekin batera egoera aztertzen dutela.

Bukatzeko, ondokoa proposatu zuten: DBHko ikasgaiak murriztea, 4. mailako ibilbideak bere horretan uztea, curriculum egokituaren unitatea eta curriculum-aren aniztasuna ere bere horretan uztea, eta tutoretzei esker antzeman den hobekuntzaren bideari jarraitzea. Zehaztu zuten DBHko 3. mailan aniztasunari ekiteko ordu gehiago behar dituztela, azpimarratu beharra dagoela derrigorrezko hezkuntzak berarekin dakarrela beti norbere ahalegina; familiaren eginbeharra argitu beharra dagoela, irakasleei, eguneko sei ordurekin, eguneroko bizitzako alderdi guztien sozializazioa eskatzen zaiola eta horretarako kanpoko laguntza ezinbestekoa dela, neurriak eskola orduetatik kanpo ere eraginkorrak izan daitezen.

oroa

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN BERRIAK ETA JARDUERAK.X

1999ko lehenengo seihilekoan, Nafarroako Eskola Kontseiluak hainbat txosten egin ditu, eta beste batzuk egiten ari da. Ondokoak dira:

1/99 txostena, Bigarren Hezkuntzako Humanitateei buruzkoa. Geure ekimenez egin genuen, eta bertan gaurko egoera hobetzeko neurri jakinak hartzea proposatu genuen.

2/99 txostena, batxilergo berrian aparteko azterketak edo iraileko azterketak aldatzeari buruzkoa. Txosten hau Departamentuak berak eskatuta egin zen, edozein arautegi idatzi eta garatu aurretik, koltsulta gisa, txostena egin behar baita. Eskola Kontseilua azterketa aldatzearen alde agertu zen, ekainaren azkenetara pasatzearen alde, hain zuzen.

3/99 txostena, Nafarroako ikastetxeetan eskola orientazioa arautu duen dekretuari buruzkoa. Agiria tramitatzea prozesu luzea eta polemikoa izan zen, baina azkenean egin zen, askok parte hartu eta aldakuntza-proposamen batzuk egin ondoren.

4/99 txostena, unibertsitatez kanpoko eskola ordutegia 1999/2000 ikasturterako arautu duen ebazpenari buruzkoa; esan daiteke egoera ez dela ia ezer aldatu, aurreko urteekin alderatuta.

5/99 txostena, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte-bermerako egitarauak arautu dituen dekretuari buruzkoa. Une honetan testua eztabaidatzen ari dira eta ez da burutuko 1999ko ekainaren 3ko bilkurara arte. Agiri garrantzitsua da; bertan Hezkuntza, Lan eta Gizarte Ongizateko departamentuek parte hartu dute.

6/99 txostena, helduen irakaskuntza eta urrutikoa arautu dituen dekretuari buruzkoa, eta horrek Nafarroan duen sareari buruzkoa. Testu hori ere eztabaidatzen ari dira eta badirudi konplikatua izanen dela, gaiaren garrantzia ikusirik eta orain arte dituzten pronunziamenduak ikusirik.

Txostena, hezkuntza zentroetan dagoen autonomiaz eta partaidetzaz. Txostena ekimen propioz egin da. Txostenean, autonomia erkidegoetako eskola kontseiluen eta Estatuaren Eskola Kontseiluaren arteko X. topaketetan (1999ko maiatzaren 12tik 14ra) izan diren eztabaiden itzalean komunitaterako ateratako ondorioak eta proposamenak planteatu dira. Asmoa da Boletin honetan proposamenen laburpena argitaratzea.

Arestian adierazitako txosten horiek egiteaz gain, Ikastetxeetako eskola kontseiluen eta Nafarroako Eskola Kontseiluaren arteko I. topaketak egin ziren, baina horien berri eman dugu Boletin honetako beste atal batean; era berean, informazioa biltzen eta prestatzen ari gara 1999ko azken hiruhilekoan Nafarroako eskola sistemari buruzko LEHENDABIZIKO txostena eman ahal izateko, gure konstituzio-legeak adierazten duen bezala, eta horrekin batera, lehenengo jarduera-urteari buruzko MEMORIA.

XI. Me

AUTONOMI ERKIDEGOETAKO ESKOLA KONTSEILUEN ETA ESTATUKO ESKOLA KONTSEILUAREN X. TOPAKETA

Maiatzaren 11 eta 14a bitartean, Autonomi erkidegoetako eskola kontseiluen eta Estatuaren Eskola Kontseiluaren arteko X. Topaketa izan zen. Urtero egiten da, hezkuntzarekin zerikusia duen gairen bat aztertu eta eztabaidatu asmoz. Honako honetan, Andaluziako Autonomia Erkidegoak antolatu du.

Topaketa hauetarako gaia (Nafarroako Eskola Kontseiluak edo Hezkuntzako Goreneko Batzarrak lehenengoz hartu du parte) "Ikastetxeetako autonomia" izan da. Aldi berean lau eztabaidagune ezberdin egon dira: autonomia eta partaidetza, antolakuntzaren arloko autonomia, curriculum-eko autonomia eta ekonomi autonomia. Aurrena, eskola kontseilu bakoitzak bere ekarpenak utzi zituen eztabaida-gune guztietan, eta gero, topaketen koordinaziorako lantaldeak "eztabaidatzeko agiria" osatu zuen, topaketek iraun bitartean eztabaidagai izan zedin eta azkenean sintesi edo ondorioak atera ahal izateko.

Jakina denez, autonomia funtsezkoa da, kalitatearen adierazgarri dela ahantzi gabe, ikastetxeen funtzionamenduan. Jakina da, baita ere, ez dagoela autonomiarik partehartzerik gabe, autonomia lortuko bada partehartzea ezinbesteko baldintza bereiztezina dela. Izan ere, elkarren

osagarri dira kontzeptu bi horiek, eta beraz, ez dago ikastetxe autonomorik hezkuntzako komunitate osoaren partaidetzarik ez duenik, hala plangintzan nola kudeaketan. Alderantziz ere gertatzen da: komunitatearen partaidetza bultzatzen duen ikastetxerik ere ezin egon liteke (parte hartzea motibazio eragile eta ikastetxearen beraren definiziorako elementutzat), baldin eta antolakuntzaren arloan, curriculum-ean eta arlo ekonomikoan autonomiarik ez badu.

Eskuartze ugarietan argi eta garbi geratu da indarreko legeriak (LODE, LOGSE eta LOPEGE) bide ematen duela hala autonomiarako nola partaidetzarako, eremuan eremuko partaidetza mailarekin. Baina argi eta garbi geratu da ideia bi horiek abian jartzeko, alegia, hizkietan dagoenari itxura emateko edo geure artera ekartzeko, beste ikastetxe mota batzuetan baino ahalegin handiagoa egin behar dutela, "kultura" berria barneratu behar dutela (badirudi mamitzen hasia dela) ikastetxe batean parte hartzen duten alderdi guztiek. Azkenik, ilusioa sortarazteko gauza diren zuzendaritza taldeak behar dira, jendea elkartzeko eta gidatzeko zuzendaritza taldeak, batez ere pedagogiaren ikuspuntutik.

Jakina, beste gauza anitz ere behar dira; besteak beste, administrazioko hezkuntzaren arloak erreferentzia hauek dituen hezkuntza ereduaren alde sendo egitea.

Ez da erraza, eta halaxe ikusi ahal izan zen. Batetik, ikastetxeak bide horri segi diezaioten nahi badugu, interesak bateratu egin behar dira, guztiak zilegi badira ere; bestetik, guztiak etorri ziren bat adieraztean kalitatea eta eragingarritasuna lortzekotan, horixe dela bidea.

X. topaketa horretan izan ginenok geure txostena prestatu eta geure proposamenak egin nahi ditugu Batzorde Iraunkorrari emateko eta gure Eskola Kontseiluko osoko bilkuran aurkezteko, eta azkenik, bidezko ondoreak izan ditzan, Hezkuntza eta Kultura Departamentura bidaliko dugu.

ertsonal

CARMEN ASENSIO ARRATIBEL.

Iragan 1999ko otsailean Carmen Asensio Arratibel andrea, Geografia eta Historiako katedraduna "Plaza de la Cruz" BHIan, jubilatu egin zen. Ikastetxeak agur beroa eta kutuna eskaini zion; alboan izan zituen behin edo behin lankide izan direnak, gurasoen elkartea eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultur Kontseilaria.

Agur emateko ekitaldian, lehendabizi, Julian Urtasun ikastetxeko zuzendariak hartu zuen hitza. Hitz goxoak eskaini zizkion, lana zein ongi egin duen laburbilduz, Carmenen izaera tolesgabea goratu zuen, gauzak ondo egitearren, ikastetxean burubelarri murgilduta egon dela, bai eta bere irakasgairik kutunenean ere, alegia, Artearen Historian; eskola orduetatik kanpoko ekintzetan eta ekintza osagarrietan parte hartzeko prest egon da beti, bere burua eskainiz azken urtera arte. Zenbat bidaia ez ote dituen gure Carmenek egin! Bukatzeko, Asensio andrearen alderik gizatiarrena aipatu zuen, hirugarren adinekoentzako geletan eta Ireneko Ateneoko jardueretan ere makina bat ordu eman dituelako. Lankideen eta Institutuaren izenean opari bana eman zion.

Ondoren, lankide izan duen Guillermo Herrero jaunak hartu zuen hitza. Honek, Geografia eta Historia ikasgaiaren bilakaera gainbegiratu zuen, Carmenen bizitza pertsonala eta laneko bizitzan eragina izan zuten ikasketa planen bitartez: lehendabizikoa 1938koa izan zen eta horren ondorik etorri ziren 1953koa, 1957koa, 1967koa, 1975ekoa eta 1990ekoa.

Hurrengoa Marisol Sanz andrea izan zen, Ikastetxeko Gurasoen Elkartearen burua; honek, agur beroaz gain, opari bat ere eman zion oroigarritzat.

Ondoren, Javier Marcotegui Ros jaun txit argiak, hausnarketa eta eskaintza berezia egin zion Carmen Asensio bere adiskide minari.

Ekitaldia bukatzeko, Carmenek berak hitz egin zuen, emozioz beterik. "Gaudeamus igitur" abestu genuen eta bazkaltzera joan ginen.

Carmen Asensio OHOn hasi zen irakasle lanetan 1954-1956 bitartean, lizentziatura ikasketak Nafarroako Unibertsitatean egin zituen eta irakaskuntza ertainetako irakasle lanetan Iruñean hasi zen 1963an, gero Irun, Oñati, Iruñeko Padre Moret Institutua eta Iruñeko "Ximenez de Rada" Institutua, gaur "Plaza de la Cruz" dena. Urte horietan guztietan ikasketa buru, zuzendariorde, zuzendari izan dugu, eta departamentuaren buru ia etenik gabe. Zorionak, Carmen, eta esker mila adiskide ona izan zaitugulako, egoten jakin izan duzulako eta lan mardula eta eragingarria egin duzulako.

ritzia

ERABATEKO KALITATEA IRAKASKUNTZAN: ERRONKA MILURTEAREN ATARIAN

Milurteak berritasuna ekarriko du irakaskuntza zentroetara, unibertsitate zentroetara nahiz bestelakoetara, bereizi eginen baitira, batetik, ISO9000 kalitate-araua edo antzekoren bat betetzen dutela egiaztatu dutenak, eta bestetik, ohiko irakaskuntza/hezkuntza dutenak. Eta, zalantzarik gabe, gizarteak irakaskuntzaren kalitatea bermatu duten zentroak aukeratuko ditu seme-alabentzat. Ikastetxeetan gero eta haur eta gazte kopuru murritzagoa egonen denez, gizarteari eskatzen zaiona eman behar zaionez, eta honek bere baliabideak kalitatea bermaturik duten zerbitzuetan baino ez duenez inbertituko, ikastetxeek ez dute besterik erronkari aurre egin baino.

Badago kalitatea hezkuntza siteman berria ez dela pentsatzen duenik, programazioetan, ebaluazioetan, curriculum-aren egokitzapenetan, tutoretzetan, hezkuntzako beste hainbat eskuhartzeetan beti aintzat hartu dela pentsatzen duenik. Baina orain kontua bestelakoa da: aldaketa koalitatiboa izanen da eta hezkuntza prozesuan zuzeneko eragina izanen du, produktuan (ikaslea) eta sisteman bertan (irakaskuntzako zentroa). Funtsean, bi gauza daude: kalitatea egiaztatzea/segurtatzea eta erabateko kalitatearen filosofia.

Lehendabizi, kalitatea egiaztatzeko/segurtatzeko jarduera planifikatu, sistematiko eta behar bezala dokumentatuak egin beharko dira; horrela, irakaskuntzako zentroak kalitatearen eskakizunak, hala barrukoak nola kanpokoak, aseko direla bermatuko du. Ikastetxeek, agirien eta kanpoko eta barruko auditoretzen bidez frogatu egin beharko dute kalitatearen eskakizunei egokitzen zaizkiela. Irakasleek, ikasleek eta irakasle ez diren langileek kalitatearen egiaztagiria edukiko badute, konpromisoak hartu beharko dituzte, ikastetxearen antolakuntza aldatzeko. Konpromisoak Kalitatearen eskuliburuan egonen dira zehaztuta.

Bigarrenik, erabateko kalitatearen filosofia dugu. Ikastetxea kudeatzeko era ezberdina da. Ikastetxeak ez dira pentsatu gabeko erakundeak, erakunde burokratikoak izanen, ez dira bata bestearen atzetik tituludunak sortzen dituzten erakundeak izanen. Erakunde dinamikoak izanen dira, matrikulaturiko ikasleen, lan-merkatuaren eta gizartearen eskariei erantzuteko gauza izanen diren erakundeak. Erakunde berri horren ardatza lantaldea eta etengabeko hobekuntzarako guztien konpromisoa izanen dira, hezkuntzako komunitateak jarri dituen helburuen arabera. Lantaldeak zenbait erantzukizun hartuko ditu bere gain, eta ondorioz, epe laburrera desagertu eginen da gauzak antolatzeko era burokratikoa, alegia, nork bere eginbeharra izatea eta hierarkiaren arabera eskumena daukanak erabakiak hartzea desagertu eginen da. Beraz, dimentsio bakarreko irakaslea, irakasgai batean aditua, aurrerantzean, enpresako hizkuntzan adierazteaz ari gara, irakasle balioanitza eta multifuntzionala izanen da. Parte hartzen du, taldean integratu egiten da, ekimenak ditu, iradokizunak ematen ditu, erantzukizun berriak bereganatzen ditu, ikastetxearen etengabeko hobekuntzarako eta arazoak konpontzeko konpromisoa hartzen du. Azken finean, pentsatzeko era aldatzeaz ari gara, jarrerak aldatzeaz.

Emaitzak? Erronka berriaren aurrean, irakasleak gogotsu azaltzea, lana pozik eta gustura egitea, ikasleek laguntzea, ikastetxeak gizartean arrakasta izatea. Hori guztia erraza da, kontuan hartuta, laburbilduz, gauzak ondo egin eta aurrenekoan egin besterik ez dela behar.

Luis Sarriés
Industri Harremanetarako
Soziologia irakasle titularra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Gaurko

"REMONTIVAL" (LIZARRA) ETA "SAN CERNIN" (IRUÑEA) IKASTETXEEN 25. URTEURRENA.

"Remontival" (Lizarra)

Remontival Eskualdeko Nazio-Eskola Mistoa zuen izena eta 1974an ireki zituen ateak aurreneko aldiz. Lehenengo ikasturtean Isidro Martinez izan zen zuzendaria eta 50 irakasle baino gehiago zeuden; horietako batzuk ez daude gaur gure artean. Oroimen berezia hemendixe.

Miguel Zapater inspektoreak mamitu zuen ideia eta pentsatu zuen hain handia egitea, eta, hasiera-hasieratik izan ziren zailtasunei aurre eginez, berak bultzatu zuen ikastetxea eraikitzea. Urrun geratu ziren auzoko eskolak, egur eta estufez berotu eta eraikin zahar eta ilunetan egoten zirenak.

Garai hartan Espainiako eskolarik handiena zen, 1.550 ikaste baitzituen, eta eskola mistoa, gainera (neskak eta mutilak gela berean). Geroago, Zudaire, Allo, Arroitz eta beste leku batzuetako ikasleak desentralizatzen hasi ziren.

Eskolarako sarbideak eta barnealdea atontzeko denbora luzea behar izan zen, eta artean obrak bukatzeke zeudenez, inauguratu gabe zegoen (25. urteurrenarekin batera inauguratu dugu).

Aurreneko ikasturteetan Eskolako Barruti Batzarra kargutzen zen funtzionamendu gastuez. Batzarra itunduriko udalak eta kontzejuek osatzen zuten; bakoitzak zenbat ikasle zituen, hainbeste diru ematen zuen. 80ko hamarkadan Lizarrako Udalak bereganatu zituen gastuak, trukean ikastetxea eskola orduz kanpo erabiltzekotan.

Gurasoen elkarteak lan handia egin du sortu zenetik eskolaren funtzionamendu onerako. Elkartekideek, baliabideak eskaini ezezik, lan eskerga egin dute.

Euskera eskola orduz kanpo eman zen lehenengoz. Geroago, ordutegi barruan ematen hasi zen eta gaur egun hiru eredu eskaintzen dira: A, G eta D.

Eskolako jantokian 1.200 lagunentzako janaria prestatzen zen eta horrek antolaketaren aldetik arazoak zekartzan.

Bigarren zuzendaria, hurrengo hamabi urteetan, José Ignacio Visa izan zen. Horren ostean etorri zen



Javier Zuñiga, 8 urtez, hain zuzen ere 1995/96 ikasturtean DBH ezarri zen arte. Urte horretan 195 ikasle baino ez zituen, batetik jaiotza tasaren beherakadagatik, eta bestetik eskola Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe gisa geratu zelako. Haur eta Lehen Hezkuntzako Herri Eskola (3 eta 12 urte bitartean) izena jarri zioten, baina REMONTIVAL izena gorde du, eraiki zen parajea gogora dakarkiguna.

Mª Mercedes Martínez andreak hartu zuen zuzendaritza hurrengo bi urteetan, Javier Zuñiga jaunaren ordez. 1997/98 ikasturtetik Antonio Marín dugu zuzendari.

Remontivalen Estellerriko 4.750 ikasle egon dira. Gaur egun 400 inguru ikasle ditu, eta hurrengo ikasturtean, ihxuraz, gehiago egonen dira, matrikulazioaren kurba gorantz baitoa. Remontivaleko ikasle batzuk ezagunak dira nor bere lanbidean, batzuk gogoratzearren, aipa ditzagun Patxi Ruiz (munduko pelota txapelduna, Mexikon), Emi Cay (antzerki-aktorea) edo Mauro Urriza (pianojolea).

Aurrera begira, gure erronka da kalitateko hezkuntza eskaintzea familiak eskatzen duen hizkuntza ereduan, autobus eta jantoki zerbitzu osagarrietan diruz lagundutako zerbitzuak eskainiz, eta lehenbailehen hezkuntzako lehenengo zikloa (0-3 urte) ematen hastea.

Hori guztia lortuko badugu, ezinbestekoa da Nafarroako Hezkuntzako Administrazioen laguntza.

Eugenio García

Remontival-eko irakasle izandakoa

"San Cernin" (Iruñea)

Duela 26 urte, Mutioa kaleko txalet txiki batean, zenbait familiaren inguruan, gure Foru Komunitateko lehenengoetariko irakaskuntzako kooperatiba jaio zen, garai hartan, Frantziako "La Asunción" erlijio-ordenako mojek zuzentzen zuten. Sortu zenetik gaur arte (orain Baranain etorbidean dago) bide luzea egin du "San Cernin" ikastetxeak, bide konplexua eta emankorra, baina beti beti irmoa. Prozesuan parte hartu duten guztiek badakite, jakin ere, beti egon dela premisa bat beste guztien gainetik; hala familiak nola irakasleek, urtez urte, guztiek berenagatu dute ondokoa: hezkuntzako komunitate batek ezin dezake beti gauza bera egin, ezin da errepikapenaren tentazioan erori, ez eta bestek egiten dutena imitatu ere, zeren eta horrela eginez bere etorkizunari baldintzak jartzen ari baita.

"San Cernin" ikastetxeak jaio zenetik erakutsi digu abenturazalea eta berrizalea dela. Etapa luze honetako une bakoitzean, iragana ez da makulua izan, eusten gaituen eta kexu gaituen makulua, oraindik ere egiteke dagoen bide luzea egiteko beharrezko bultzakada bai-

zik. Kooperatiba sortzea bera izan zen lehenbiziko erokeria (hirurehun bat familiaren eskutik) eta haren atzetik hainbat eta hainbat gauza egin dituzte, baterako hez-



kuntza, hauteskunde prozesuak, frantsesa, ingelesa, alemaniera, informatika, tutoretzak, eskola trukeak, gurasoen inplikazioa hezkuntza prozesuan, zentro batetik bestera ibili beharra, instalazio berriak eraikitzea 1.800 ikaslerentzat, ikastetxe hau handia ere handia dela argi uzten digutenak.

25. urteurrena aitzakiatzat hartu dugu atzoko eta gaurko familiak, irakasleak eta ikasleak elkartu eta beren artean hitzegiteko, gozatzeko eta gogoratzeko aukera izan dezaten. Zortzi egunetan zehar antzerkia, musika, kirola, hiztaldiak eta omenaldiak bilgune izan dira bizi izandakoez eta proiektuez mintzatzeko.

Baina protokolo-ekintza eta jai-ekintzez gain, ospakizun egun hauetan hausnarketarako tartea ere izan dugu, geure inguruabarrez, geure nortasunaz hausnartzeko abagunea. Iragana deitzen diogun lehenaldiko denbora horretaz pentsatzean, esku bete esperantza ikusi ditugu, batzuk lortu gabe baina ez porrot gisa hartzeko ere; etorkizuna konpromisoz beterik dakusagu, nagiak ateratzera eta errutinaren tentazioan ez erortzera behartzen gaituzte konpromisook. Hurrengo 25 urteak nolakoak izanen diren pentsatzean, horixe baita ospakizun ororen benetako helburua, ez dugu errezelorik izan behar ezezagunaren aurrean, bai baitakigu zalantzarik gabe eta harridurarik gabe, lotsagabekeriarik gabe eta "matxinadarik" gabe, ez dagoela aurrera egiterik, ez dagoela zientziarik, ez dagoela sormenik. Ikastetxe honetako hezkuntzako komunitatea osatzen dugunok, irakasleak eta ikasle eta gurasoak ere, ondotxo ikasi dugu lehen 25 urte hauetatik mundua orientazio humanista eta erlijiosotik ulertzea (hala nahi dugulako) dela etorkizuneko erronkei benetan aurre egiteko dugun tresna bakarra. Ondotxo dakigu gure burua trabaturik eta baldintzaturik badago, edo uzkurturik badago eta doilorra bada, ez dela ezer onik aterako handik, ez dela gezurra eta zitalkeria ez denik aterako. Eta horregatik guztiagatik, pozarren gaude 25 urte bete ditugulako eta zain beste 25 noiz beteko.

Juan Martín Tabar Goñi
"San Cernin" ikastetxeko zuzendaria

2. zk.
1999

Ide

Editoriala

Gaur, gure artean ez dago boladan arrazista, fazista edo integrista zarela esatea, ez eta kontserbadore zarela esatea ere. Baina benetan, barne-barnean, sentimendu ezberdinak, batzuetan aurkakoak, mamitzen eta gorpuzten dira. Inork ez du nahi izaten beste inork arrazista dela esan diezaion, elkarbizitzaren arazoa datorkionean, kasurako, ijitoekin, gure gizarteko talde jakin horrekin; edo beste multzo handiago horrekin, zabalagoa, anitzagoa eta konplexuagoa den horrekin. Izan ere, etnia, erlijio, ekonomia, gizarte eta kultura ezberdinetatik datozen horiek, ezezagunak eta arrotzak dira erabat guretzat eta horiek geure egitea eta onartzea nekeza ere nekeza egiten zaigu.

Ez dakit adimenaren edo ideologiaren ikuspegitik, gure erkidegoan gero eta handiagoa den inmigrazioak, berez, berarekin dakartzan ezberdintasuna eta aniztasuna gorroto ditugun ala horiek ito egiten gaituzten. Baina kontua da gure sentimenduak hain zuzen ere arazoa hurbil daukagunean azaleratzen direla, arazoak eta haien ondorioak zipriztintzen gaituztenean, orduantxe loratzen direla sentimendu arrazistak. "Ni ez naiz arrazista" diogu ozen, jendaurrean, baina pribatuan, ahapean, unea iristen zaigunean, adierazi egiten dugu ez dugula gustuko ezaugarri horietako familia baten ondoan bizitzea, eta pisua alokatzeko orduan... Oro har, ez dugu gustuko gure seme-alabak haien ikastetxe berean ibil daitezen, haiekin nahas daitezen eta haiekin harremanak izan ditzaten, zeren eta, besteak beste, hori gure seme-alaben prozesu normalaren kalterako baita.

Beharbada, sakoneko arrazoia da Nafarroako gure gizartean, politikoki sendoa eta gizartearen alderditik aurreratua den Nafarroa honetan, hor ezkutuan, sendo erroturik ditugula bi errealitate, bi mundu, bi ikuspegi, baina arazo honek gizartean duen eragina zeharo ezezaguna zaigu, eta ondorioz, erantzuna ere parekoa da: hezkuntzako, laneko, gizarteko eta osasunaren arloko erakundeen erantzunak laguntza izaera hutsa du inmigrazioaren arazoaren aurrean. Diferentziak ezarri eta gehiengoaren eta "besteen" arteko aldea gordetzen saiatzen gara.

Geure buruaz mintzo garenean, geure foru komunitatea aipagai dugunean, ez dugu besterik egiten aurrera pausuak eta aurrerapenak goratu baizik, adurra dariola egoten gara, batik-bat gizartearen alderdia aipatzen dugunean eta are gehiago geure burua beste autonomia erkidego batzuekin erkatzen dugunean. Baina ezkutatu egiten dugu beti beste errealitate hori, baztertutako taldeena eta baztertutik dauden gutxiengoena. Beste Nafarroa hori ere Nafarroa da.

Horregatik, ezin dugu ahaztu gizarte bat ez dela politikoki heldua, gizartearen aldetik garatua eta demokratikoki sendoa, komunitatean dauden gutxiengoen kultur aniztasuna barneratzen ez duen bitartean, gutxiengo horien guztien integraziorako eta elkarbizitzarako neurriak hartzen ez dituen bitartean, baliabide guzti-guztiak, hala giza baliabideak nola baliabide ekonomikoak integrazioa lortzeko erabiltzen ez dituen bitartean.

Komeni da gogora ekartzea gu geu zer izan garen iraganean, zer izan garen aspaldi ez dela: emigrazio masiboa bizi izan duen herria, bereziki Nafarroa. Esan beharra dago arrazoiak eta kariak berdinak direla, edo arrazoi politikoak, edo gizarte arazoak, baina kontua da jaioterritik irtetera beharturik daudela, han lanik ez egoteagatik edo duintasunez bizitzeko adina baliabide ez egotearen ondorioz baldintza latzetan bizi izateagatik. Horixe da bizi-irautearen legea.

Nafarroara itzuliz, ijitoen komunitatea daukagu, gehienak duela 25 urte edo gehiago hona etorriak, eta baita gehienbat magrebiarrez osaturiko beste talde bat ere, Erribera aldean, gure artean hamarkada bat baino gehiago daramatenak.

Zer egin du Nafarroako gizarteak gutxiengo etniko eta gutxiengo kultural hauen alde? Onartu eta aitortu beharra daukagu ezer gutxi egin dugula eguneroko bizitzan integratzeko.

Nafarroako Gobernuak helduentzako hezkuntza eskolak ditu Iruñean eta Tuteran atzerritarrentzako gaztelera ikastaroak emateko; horrek agerian uzten du talde horrek baduela interesa, baduela ardura eta baduela ahalegina egiteko gogoa gure gizartean integratzeko: ikasi gure artean bizitzeko, gurekin harremanak izateko eta beren burua defendatzeko.

Baina ez dira hor bukatzen zailtasunak.

Onartu egin behar dugu gauzak horrela direla eta arazo honi irtenbidea aurkitu, zintzo jokatuz, aniztasunean eta ezberdintasunean bizitzeak dituen alde onak ikusiz, aberasgarria dela ikusiz. Zeregina guztiona da, nahiz eta erantzukizunik handiena gure erakundeek eta gure agintariek duten.

Zeren eta, kultur, gizarte eta ekonomiaren arloko inplikazioengatik, inmigrazio politikaren oinarria politika aktiboak behar du izan, ondoko gidalerroak bere eginen dituen politika aktiboa:

Inmigrazioa eragiten duten arrazoiak ezabatzea, inmigranteen jatorrizko herriekin lankidetzan arituz garapenean laguntzeko.

Migrazioen fluxuak hobeki ezagutzea, benetako politika integratzailea lantzeko.

Nafarroan bizi diren etorkinen gizarte integrazioan aurrera egitea.

Nire ustez, hauxe da Espainiako gizarteak, orokorrean, eta Nafarroakoak, bereziki, konpontzeke duen arazoetariko bat.

Ángel Oliver
HOHIko irakaslea Tuteran

Aldizkari Berri-Emailea
Nafarroako Eskola Kontseilua

eskolara